EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

ANTSO JAKITUNEKO OBRAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Antso Jakituneko obraren ingurukoa, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoetako,Obra eta Zerbitzu Publikoen Batzordean 2019ko apirilaren 8ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.,

JUSTIFIKAZIOA

Ernesto Gasco delegatuak 2016an Antso jakitunaren atari bakoitietako jardinerak, gaur egun dauden lekutik kendu eta errepide ondora eramango zituela adierazi zuen. Proiektuak urte hauetan bere gorabeherak izan ditu, baina auzotarrekin ez da ez partaidetza prozesu bat ireki, ez eta proiektua bera erakutsi ere. Hori dela eta Amara Berri auzo elkarteak Antso Jakitunean sinadurak bildu ditu, Gasco jaunak bertan proiektua azaldu dezan. Jendea oso kezkatua dago, oraindik Azpeitia kaleko zuhaitz guztien txikizioa burutik ezin baitute kendu.

Gascok batzordean adierazi zuenez, auzotarrekin proiektua ez du partekatu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, auzotarrei irekitako bilera batean proiektua aurkez diezaiela, Udal Gobernuak hauen iritziak edota ikuspuntuak kontuan har ditzan.
2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio,Antso Jakituneko gaztainondoak ez ditzala moztu.
3- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio,palmondoak ukitu baino lehen hauen birlandaketa non egingo den adierazi dezala.

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

IERK/
CIF
P2007
5002A/
TEDR
PE
0172O
6895
10655
2011-
06